

# BIRGAITZE INTEGRATUA

## EUSKO JAULARITZAKO FINANTZA LAGUNTZEN ESKEMA

20.04.15

### KOMUNITATEARI BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZA

% 10eko diru-laguntza. Diru-laguntza hau ez da itzuli behar Gehienez 3.000 €  
(Eskaileretan eta atarian egiten diren lanetan ez da egongo diru-laguntza hau)

\*Eraikinaren ingurutzailerak, hobekuntza suposatzen duten birgaitze lanak beste era bateko laguntzak izango dituzte.  
Helburua, gutxienez Eraikuntza Kode Teknikoaren (2014ko azaroaren 23ko agindua), Energia Aurrezteko Oinarrizko Agiriko 3. atalean agertzen diren muga-balioetara heltzea izan behar da.

Jabekideen komunitateari bideratutako diru-laguntzen zenbatekoa, hurrengo hobekuntza-ehunekoei erantzungo die, beti ere, lortutako eskakizun mailen arabera:

a) "M2 hobekuntza-ehunekoa" lortzen duten obrak. Eraikinaren aurreko ingurutzailerarekin konparatuta %0 eta %50 bitarteko hobekuntza. Jabekideen komunitateari emango zaion diru-laguntza, aurrekontu babesgarriaren %30 izango da. Diru-laguntza hau ez da inoiz 30.000 euro baino gehiagokoa izango.

b) "M2 hobekuntza-ehunekoa", lortzen duten obrak. Eraikinaren aurreko ingurutzailerarekin konparatuta %50 baino gehiagoko hobekuntza. Jabekideen komunitateari emango zaion diru-laguntza, aurrekontu babesgarriaren %50 izango da. Diru-laguntza hau ez da inoiz 45.000 euro baino gehiagokoa izango

### AUZOKIDEI BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK

#### DIRU-SARRERAK AURKEZTU BARIK

\*Zerga-arintze fiskala

#### DIRU-SARRERAK AURKEZTUTA

**HITZARMEN MOTA MAILEGUA** **ITZULI BEHAR EZ DEN DIRU-LAGUNTZA**

33.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera haztatuak

\*Kreditu Pertsonala


\*Hipoteka Kreditua

21.000 euro baino gutxiagoko diru-sarrera haztatuak

\*Kontuz, diru-laguntza hauek mugak

dituzte. Muga hauek eskaera-orrrian agertzen dira

3.- Bila ezazu taulan zuen dúu-sarrera haztatuari dagokien tarteak, baita familia unitateko kide kopuruari eta obra motari dagokiena ere, eta, diru-laguntzaren ehunekoa ez ezik, jaso dezakezun gehiengo zenbatekoa ere jakingo duzu.



DIRU-SARRERA HAZTATUAK	FAMILIA UNITATEKO KIDE KOPURUA	OBRA MOTAK		
		1. ETA 2. MOTAKOAK	3. MOTAKOAK	4. MOTAKOAK
9.000 euro gehienez	3 edo gutxiago	% 35	% 40	% 15
	4	% 40	% 45	% 20
	5 edo gehiago, edo Familia Ugaria	% 45	% 50	% 25
9.001 eurotik 15.000 eurora bitarte	3 edo gutxiago	% 30	% 35	% 10
	4	% 35	% 40	% 15
	5 edo gehiago, edo Familia Ugaria	% 40	% 45	% 20
15.001 eurotik 21.000 eurora bitarte	3 edo gutxiago	% 25	% 30	% 5
	4	% 30	% 35	% 10
	5 edo gehiago, edo Familia Ugaria	% 35	% 40	% 15
<b>DIRU-LAGUNTZEN GEHIENEOA</b>		<b>5.500 EURO</b>	<b>5.940 EURO</b>	<b>2.200 EURO</b>

Birgaitzearen titularrei ez zaie 60,00 €-tik beherako zenbatekoa duen itzuli beharrik gabeko diru-laguntzarik emango.

Administrazioak onartutako itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioarekin finantza-hitzarmen espezifikoaren izenpetu duten Finantza Erakundeetako baten bidez jasoko dira (osorik ala partzialki). Horretarako, obrari dagozkion zituagiriak (partzialak edo amaierakoak) aurkeztu behar dira erakunde horietako batean, dagokion administrazio-ebazpenean ezanitzakoari jarraiki.

Obra-amaieraren ziurtagiria aztertu ondoren diru-laguntzak aldatu edo balio gabetu ahal izango dira obrak egin ez direla egiaztatzen bada.